



EUSKADIKO BIKOIZKETAREN ARLO
ARTISTIKOKO HITZARMEN
KOLEKTIBORAKO PROPOSAMENA

AURKIBIDEA

I. ATALA.-EREMU ETA ARLOAK

1.ARTIKULUA.-LURRALDE EREMUA.....	3
2.ARTIKULUA.-ARLO FUNTZIONALA.....	3
3.ARTIKULUA.-LANGILEAK(LANBIDEA).....	4
4.ARTIKULUA.- HIZKUNTZA.....	4
5.ARTIKULUA.-IRAUNALDIA.....	5
6.ARTIKULUA.-ERANSKINAK.....	5

II. ATALA.-ESPEZIALITATEAK, FUNTZIOAK ETA LAN-UNITATEAK

7.ARTIKULUA.-ESPEZIALITATE PROFESIONALAK.....	6
8.ARTIKULUA.-ARTISTAK.....	6
9.ARTIKULUA.-BIKOIZKETA ZUZENDARIA.....	6
10.ARTIKULUA.-LAN-UNITATEAK.....	7
11.ARTIKULUA.-GIROAK.....	8
12.ARTIKULUA.-TAKEEN BERRERABILPENA.....	8

II. ATALA.-DEIALDI BEREZIAK

13.ARTIKULUA.-TAKEEN ERREPIKAPENERAKO DEIALDIA.....	9
14.ARTIKULUA.-TRAILERREN DEIALDIA.....	9
15.ARTIKULUA.-ERREFERENTZIA SOINUA DUTEN EDO SOINURIK GABEKO IKUS-ENTZUNEZKOEN BIKOIZKETA.....	9
16.ARTIKULUA.-AHOTS PROBAK EDO CASTING-AK.....	10
17.ARTIKULUA.-ABESTIAK EDO INTERPRETAZIO MUSIKALAK.....	10
18.ARTIKULUA.-DOKUMENTAL REALITY ETA ANTZEKOEN BIKOIZKETA.....	11
19.ARTIKULUA.-BIDEOJOKOEN BIKOIZKETA.....	11
20.ARTIKULUA.-JOSTAILUETAKO TXIP-AK, ERANTZUNGAILUAK ETA ABAR.....	12
21.ARTIKULUA.- AUDIO-LIBURUAK ETA IKASTARROAK.....	12
22.ARTIKULUA.- PROMOZIOAK.....	13
23.ARTIKULUA.- PUBLIZITATEA.....	13
24.ARTIKULUA.- EZAUGARRI BEREZI BAT BAINO GEHIAGO DEIALDI BEREAN.....	14

IV. ATALA.-KONTRATAZIOA

25.ARTIKULUA.-KONTRATAZIOAREN BALDINTZA OROKORRAK.....	14
26.ARTIKULUA.-DEIALDIKO KONTRATUA.....	14
27.ARTIKULUA.-KONTRATU MUGAGABEA.....	15
28.ARTIKULUA.-ALDI BATERAKO KONTRATUAK.....	15
29.ARTIKULUA.-OBRA-KONTRATUA.....	15

V. ATALA.-OHIKO LANALDIA

30.ARTIKULUA.-OHIKO LANALDIA.....	16
31.ARTIKULUA.-LANALDIA LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN.....	16
32.ARTIKULUA.-GAUEKO LANALDIA.....	16
33.ARTIKULUA.-ADINGABEEN LANALDI ETA LAN-BALDINTZAK.....	16

VI. ATALA.-LAN-EREMUA

34.ARTIKULUA.-OINARRIZKO ESKUBIDEAK.....	17
35.ARTIKULUA.-LANGILEEN LEGEZKO ORDEZKARIEN FUNTZIO ETA ESKUMENAK.....	17
36.ARTIKULUA.-SINDIKATU ETA ELKARTEEN BITARTEKARITZA.....	18
37.ARTIKULUA.-PARTEARTZE ETA ORDEZKARITZA SINDIKALA.....	18
38.ARTIKULUA.-SOLDATAK,GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOAK ETA LEGEZKO KENKARIAK.....	18
39.ARTIKULUA.-BATZORDE PARITARIOA.....	19

VII. ATALA.-KAUTELAZKO NEURRIAK

40.ARTIKULUA.-ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.....	20
41.ARTIKULUA.-HIRUGARRENEKIKO ERANTZUKIZUN PROFESIONALA.....	20
42.ARTIKULUA.-ITUN BALIOGABETZEAK.....	20

VIII. ATALA.-FAMILIA ETA LANAREN BATERAGARRITASUNA ETA OPORRALDIA

43.ARTIKULUA.-FAMILIA ETA LANAREN BATERAGARRITASUNA.....	21
44.ARTIKULUA.- OPORRALDIA.....	21

I.GO ERANSKINA/SOLDATEN

ERANSKINA.....	22
-----------------------	-----------

I. ATALA.- EREMU ETA ARLOAK

I. ARTIKULUA.- LURRALDE EREMUA

1.1.- Hitzarmen kolektibo hau, Euskadiko Autonomia Erkidegoko lurralde osoan ezarriko da.

2. ARTIKULUA.- ARLO FUNTZIONALA

2.1.-Hitzarmen honek bikoizketaren eta ikus-entzunezkoen soinu-jartzearen eremu artistikoan gertatzen diren lan harremanak arautzen ditu, lan hauek direlarik:

- a) Zinema filmak, edozein dela haien formatu eta iraupena.
- b) Bideo edo telebista filmak, nahiz bakarrak edo atalkakoak eta telesailak.
- c) Musika interpretazioak
- d) Dokumental, erreportaia eta antzekoak, naiz telebista edo zinemarako, II. Atalean zehaztuko denez.
- e) Bideojokoak
- f) Erantzungailuak, jostailuen zirkuitu integratuak eta ahots .
- g) Tele-salmenta saio publikoak
- h) Audioliburuak eta informazio, hezkuntza edo beste edonolako ikastaroak.
- i) Promozioak
- j) Publizitate spot eta irrati iragarkiak.

2.2.-Lan harremanak arautzeko funtzioa, Hitzarmen honek xedatzen duenera atxikitzen da, berdin diolarik zein den obra zabaldu edo merkaturatzeko erabiltzen den bideak, bikoiztutako obrak izan ditzaken hedapena edo audientzia, eta baita hedatzeko erabiliko den komunikabidea publikoa edo pribatua den, edo satellite bidez, kablez, interneten, sare informatiko batean edo beste edozein bitarteko hautemangarri edo ez erabiltzen den, ezagun edo ezezaguna, eta berdin diolarik obraren ustiapena areto komertzial, antzoki, zinema, supermerkatu edo bideoklub bidez egiten den, edo salmentarako edo edozein motatako elkarteren eskutik ustiatzen den, eta ustiapena irabazizkoa den edo ez.

2.3.-Halaber lan harremanak arautzeko funtzioa Hitzarmen honek dionari atxikitzen da edozein dela lana gauzatzeko erabilitako euskarria. 35 edo 16mm-tako filma, edozein bideo material, CD, CD ROM, DVD, Blu-Ray edo beste edonolako euskarri multimedia, ezagun edo ezezaguna.

3. ARTIKULUA.- LANGILEAK (Lanbidea)

3.1.-Hitzarmen kolektibo honek bikoizketaren eremu artistikoan lan egiten duten langileen (aktore eta zuzendariak) lan erlazioak arautzen ditu bikoizketa eta ikus-entzunezkoen soinu-jartzean aritzen diren enpresekin, bikoiztetxe, telebista kate edo bideo edo zine banatzaileekin edo beste edozein euskarri multimedia erabili eta hitzarmenak aipatzen dituen profesionalen lanaren behar zuzena dutenekin. Euskarazko eta Gaztelerazko lan multimedien bertsioak bakarrik ekoizten dituzten enpresekiko lan erlazioak ere araututa geratzen dira. (CD ROMak, bideojokoak eta abar)

3.2.-Ikus-entzunezkoen bikoizketa edo soinu-jartzerako enpresa baten kontratazioa egiterakoan, obraren edo banaketa-eskubideen jabe den enpresa eta baita azpikontratatua edo kontratatua den enpresak egunera izango dituzte Gizarte Segurantza eta langileen ordainsarien gaineko berme eta ardurak Langileen Estatutuko 42.en artikuluan arautzen denaren arabera.

3.3.-Hitzarmen honetan arautzen ez diren oinarrizko lan-eskubide eta betebeharrak, egunean indarrean den legedian eta abuztuaren 1eko 1435/1985 Erret Dekretuan azaltzen den artisten jendaurreko lanaren gaineko araudi berezian oinarrituko dira.

3.4.-Hitzarmen honek xedatzen dituen ordainsari, lan eskubide eta betebeharrak, egun indarrean dauden arau eta hitzarmenak baliogabetu eta ordezkatzeko dituzte, baita eremu txikiagoko Hitzarmen edo enpresa akordioetan egindakoak ere. Enpresek langileei pertsonalki aitortutako kondizio bereziak guztiz onargarriak izango dira Hitzarmen honen gutxienekoak gainditzen dituztenean.

4. ARTIKULUA.- HIZKUNTZA

Hitzarmen honek Espainiar estatuan ofizial diren edozein hizkuntzatarako bikoizten edo soinua jartzen zaion lani egokitzen zaio, baita ofizialtasunik gabe ere zenbait lurraldetan erabil daitezken hizkuntzetan egindakoei.

5. ARTIKULUA. - IRAUNALDIA

5.1.- Hitzarmen hau 2020koren 01etik 202 ko abenduaren 31era izango da indarrean. Adostutako iraupena amaiturik, aldeetako batek ez badu amaitutzat eman, urtero luzatuko da hitzarmena, urteari dagokion KPI igoera soldaten eranskinetako balio guztietara gehituko delarik.

5.2.- . Hitzarmenaren indarraldia edo urteroko luzapena bukatu baino gutxienez 3 hilabete lehenago jo beharko da amaitutzat hitzarmen hau.

5.3.- Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, berariaz erabakitzen dugu, behin hitzarmenaren iraupena bukatu eta amaiera iragarri ondoren, indarraldia luzatzea harik eta bi aldeek hurrengo hitzarmena sinatzen duten arte.

5.4.-Aplikatzeko eza

Sektoreko enpresaren baten asmoa bada (ekonomia, teknika, antolakuntza edo produkzio mailako arazoak tarteko) hitzarmen hau aldi batean ez aplikatzea, eta langileen ordezkarietara akordio bat lortzen ez bada, eta aplikatzekoak diren gatazkak konpontzeko prozeduren bidez ez bada desadostasuna erabakitzen, bi aldeek (enpresaren ordezkariak eta langileen ordezkarietara gehiengoak) ezinbestean adostu beharko dute ez-betetzeari buruzko desadostasuna Hitzarmen Kolektiboaren Aholku Batzorde Nazionalaren (CCNCC) edo EAEko hiruko organo baliokidea den ORPRICCE ren esku uztea, abenduaren 30 eko 471/2013 Dekretuak xedatzen duenez.

6. ARTIKULUA.- ERANSKINAK

Ordainsarien eranskina, hemendik aurrera 1. go Eranskina, Hitzarmen honen parte banaezina da. Honetaz gain, alderdien akordioa tarteko, behar adina eranskin gehitzea zilegi izango da edozein momentutan, testu honetan landutako gaien gaineko berrikuntzak Hitzarmenari gehitzeko.

Eranskinak, behin Hitzarmenari lotuta, banaezinak izango dira, eta hitzarmenaren beraren balio berdina izango dute.

II. ATALA. ESPEZIALITATEAK, FUNTZIOAK ETA LAN-UNITATEAK

7. ARTIKULUA.-ESPEZIALITATE PROFESIONALAK

Hitzarmen honetan araututako espezialitate profesionalak honakoak dira:

- a) Artistak (bikoizketa aktore/aktoriesak)
- b) Bikoizketa zuzendariak.

8. ARTIKULUA.- ARTISTAK

Bikoizketa aktorearen egitekoa, jatorrizko aktore edo pertsonaiaren antzezpena jokatu eta sinkronizatzean datza, jatorrizkoaren antzezpenari ahalbait eta gehien atxikiz eta bikoizketa zuzendariaren esanei jarraituz. Artistaren egitekoa da halaber erreferentzia soinurik gabe pertsonaiak sortzea.

8.1.-Deialdia edozein motako pertsonaien bikoizketa egiteko jaso dezake; protagonistak edo beste edonolakoak, eta baita giroen bikoizketarako ere.

8.2.-Offeko ahotsa behar duten eta beraz inolako aho sinkronizaziorik behar ez duten mota guztietako lanen soinu-jartzerako deialdiak jaso ditzake, edozein dela lan hauen euskarria edo formatua.

8.3.-Rolen errepikapena:

a) Artista batek, edozein dela bere kontratu mota, film edo telesail atal bakarrean ezingo du pertsonaia bat baina gehiagoren papera bete, takeen kopuru totala 15etik gorakoa baldin bada. Jatorrizko aktore edo pertsonaiak paper bat baina gehiago baditu salbuespena egingo da, eta ez dira takeen kopuruan giroak, izenburuak eta kartelak gehituko.

b) Aho sinkronizaziorik behar ez duten produktuetan ere salbuespena egingo da.

9. ARTIKULUA.-BIKOIZKETA ZUZENDARIA

Bikoizketa zuzendaria, ikus-entzunezko baten edo gehiagoren bikoizketa zuzentzeko enpresak kontratatzen duen profesionala da. Ikus-entzunezko guztien bikoizketan zuzendaria derrigorrezkoa izango da. Zuzendaria bikoizketaren arduradun artistikoa izango da enpresarekiko eta edozein delarik bere kontratu mota, egiteko hauek izango ditu:

9.1.-Bikoiztu beharreko obra aurrez ikuskatzea. Honetarako, ikus-entzunezkoaren bikoizketa hasi baina nahikoa lehenago ikus-entzunezko materiala eduki beharko du, irudi eta audio kalitate onetan, obra argi ikus-entzutea galerezko dion inolako eragozpenik gabe.

9.2.-Zuzendaria izango da testuen egokitzapenak beharrezko izan ditzaken aldaketen azken arduraduna. Egoki deritzon aldaketak egin ahalko ditu antzezpen artistikoaren onerako egokitzaile profesionalak landutako testuaren gainean.

9.3.-Bikoizketan edo ahots proba edo castingnetan parte hartuko duten artistak proposatuko ditu, jatorrizko obrari ahal bait gehien atxikiz.

9.4.-Enpresarekin, egin beharreko bikoizketaren plangintza jarraituko du.

9.5.-Teknikoki eta artistikoki aktoreak zuzenduko ditu, deialdietan zehar aretoan izango delarik. Zuzendariak ez da aretotik joango beste deialdirik betetzera, aretoko lana amaitzen duenerarte.

9.6.- Produkzio arazoengatik edo testuan sor daitezken aldaketengatik aurrikusita zegoen take edo lerro kopurua zenbatu eta produkzio horrian adieraztea.

9.7.-Lan giro ona eta diziplina zaindu eta bikoizketaren kalitate artistikoa bermatzeko ahaleginak egitea.

9.8.-Bakarrik edo bezeroarekin edo enpresaren arduradunekin bikoiztutako obra ikuskatzea.

9.9.-Bikoizketa zuzendaria, obraren gainean egin beharreko zuzenketetan (retake) egongo da. Bikoiztetxeek berarekin adostuta programatuko dute zuzenketen deialdia, eta agenda edo presazko arazoengatik ezinezko balitz, enpresa derrigortuta dago zuzendaria egin behar diren aldaketen jakinaren gainean jartzera, eta zuzendaria izango da oniritzia eman ez onartzearen arrazoiak azalduz azken erabakia hartuko duena.

10. ARTIKULUA.-LAN-UNITATEAK

Hitzarmen honetan jasotzen diren espezialitate laboralen lan unitateak honakoak dira:

a) Artistentzat: Deialdia eta takea.

b) Zuzendarientzat: Zuzendaritza lansaiola, lanaldi kopurua eta metraje minutua.

10.1.-Deialdia. Enpresak langileari egiten dion deiak, ahozko kontratua zertzen du. Honek, data, ordutegia eta lanaldian egingo den lan kantitate eta lan mota zehaztuko ditu. 7 ordu edo gutxiagokoa izango da eta GS ko alta eta dagokion ordainsaria izango ditu.

10.2.-Takea. Bikoiztuko den obraren testuaren zati bakoitza da takea. Zatiketari erabiliko diren irizpideak antzezpena erraztu eta funtzionalitatea sustatzekoak izango dira. Takearen neurriak:

a) Take bakoitza gehienez 8 lerrotakoa izango da, take barruan pertsonaia bat baina gehiago daudenean. Pertsonai bakoitzak 5 lerro izango ditu gehienez takeko.

b) Testu lerroa, Arial 12 letraz idatzitako 60 karekerez osatutakoa da. Lerroa osatzeko karaktereen zenbaketan kontuan hartzen dira hutsuneak, puntuazio markak eta argibideak.

c) Takearen gehienezko denbora iraupena 45 segundoko izango da.

d) Osatu gabeko lerroa, lerro oso bezala hartuko da, hitz bakar bat, zati bat, edo soinu batez osatua bada ere.

e) Ezin da lerrorik osatu testu argibideak gehituz, eta ezin dira lerro batean beste eszena edo sekuentzia bateko hitz edo soinuak gehitu.

f) Pertsonai baten elkarrizketan 10 segundo edo gehiagoko isilune edo jatorrizko soinua agertzen badira, take berri bat gehituko da.

g) Bikoiztaile bakoitzak antzeztutako takeen kopurua produkzio horrian dagokion tokian azalduko da, edozein dela artistak daukan kontratu mota.

h) Deialdiko kontratua duten artistek I.go eranskinean azaltzen diren zenbatekoak jasoko dituzte takeko, dagokion ikus-entzunezko obraren arabera.

i) Arrazoi tekniko edo artistikoak medio deialdirako hitzartutako takeak bikoiztuko ez balira, ordainduko ez diren takeak ez dira hitzartutako guztien %30 baino gehiago izango.

10.3.-Zuzendaritza lansaioa. Bikoizketa zuzendariarentzat zehazten dena da, Hitzarmen honetako 9. Artikuluan arautzen diren eginkizunengatik kontratatzen denean.

Zuzendaritza lansaioa gehienez 7 ordukoa edo horren zatiki batekoa izan daiteke. Ikus entzunezko obraren araberrako ordainsaria, I.go eranskinean zehaztutakoa da.

10.4.-Metraje minutua. Bikoiztuko den obrak hasieratik bukaerako kreditu tituluen amaierarte daukan minutu edo zatikiak dira. Hitzarmen honen I.go eranskinean zehazten dira lan mota ezberdinetako metraje minutuen ordainsariak.

10.5.-Lanaldi kopurua. Enpresak zuzendariarekin zehaztuko du lan artistikoa gauzatzeko beharrezko lanaldi kopurua. Hitzartutako lanaldietatik kanpo geratzen direnak, lanaldi berezitat hartuko dira, eta deialdiaren ordainsariarekin batera ordukako ordainsaria izango dute, I. eranskinean zehazten den moduan.

11. ARTIKULUA.-GIROAK

11.1.- Giro bezala ulertzen dira keinu, marmar,eztul, barre, negar eta hauen antzekoak, bai eta hitz labor eta zehatzak, talde baten partaide diren pertsonaien artean gertatzen direnak, bakarkakorik gabe eta hortaz soinu sinkronia baino eskatzen ez dutenak.

11.2.-Giroen deialdian parte hartzen duten artistek, edozein dela beraien kontratu mota, Produkzio horriko "Pertsonaia" laukian Giroa izenpean azalduko dira.

11.3.-Giroen takeen neurria 45 segundotakoa izango da gehienez.

12. ARTIKULUA.-TAKEEN BERRERABILPENA

12.1.-Bikoizketarako ikus-entzunezkoan ezingo da jatorrizko soinu bandan azaltzen diren take edo zatiak berrerabili, pertsonaia ikus-entzunezkoaren iraupen osoan bikoiztu behar ez den kasuetan ez ezik. Arrazoi tekniko edo artistikoengatik tratamendu berezia behar duten take edo zatietan, bikoizketa zuzendaria izango da erabakia hartuko duena, enpresarekin adostuta. Bikoiztu behar ez diren pertsonaien lerroak edo zatikiak, takeen gehienezko lerro kopurua kalkulatzeko garaian, beste edozein pertsonaiarenak bezala hartuko dira aintzakotzat.

12.2.-Ezingo da ikus-entzunezko batean egindako takerik edo take zatirik berrerabili ikus-entzunezko horren trailerrean edo trailerretan.

12.3.-Enpresak debekatuta daukate ikus-entzunezko baterako egindako takeak beste ikus-entzunezko batean errepikatzea, bai eta obra edo telesail beraren atal desberdinetan. Hala egin behar ezker aparteko deialdi eta errepikatzen diren takeak ordainduko lituzke. Salbuespena izenburu eta goiburu generikoekin egingo da.

III. ATALA. DEIALDI BEREZIAK

Ohiko deialdiez gain, ohiko ordutegi eta baldintzak betetzen dituztenak, badira daukaten izaera edo zailtasunagatik berezi bihurtzen diren deialdiak. Hauek dira:

13. ARTIKULUA.-TAKEEN ERREPIKAPENERAKO DEIALDIA

Ikus-entzunezkoan lan egindako artistak edo artistek, beraiek egindako lanaren zatiren bat errepikatzeko jasotzen duten deialdia da.

13.1.-Artistak espreski lan hori bakarrik egiteko deialdia jasotzen bada, ikus-entzunezko berri baten bikoizketarako jasoko lukeen ordainsaria jasoko du. Lantokira egin beharreko joan etorria 100 km edo gehiagokoa bada, deialdiaren ordainsaria %100 gehituko da.

13.2.-Artista enpresan beste lan batzuetan ariko balitz, zuzendutako eta errepikatutako takeak l.go eranskinean dagozkion salneurrian jasoko ditu, egun horretako deialdiari atxikita.

13.3.-Ezinbesteko kasuetan ez ezik, takeen errepikapena lehenengo bikoizketa egindako artista berak egingo du derrigorrez.

14. ARTIKULUA.-TRAILERREN DEIALDIA

Trailerra, publizitate asmoz ikus-entzunezkoa sustatu eta erakusteko aurrerapena da, jatorrizkoa bera emango den hedabideetan. Trailerren bikoizketa honela aurrirakusten da:

14.1.-Trailerra dagokion ikus-entzunezkoaren bikoizketarako egiten den deialdien barruan bikoizten bada, parte hartzen duten artistei dagozkien take kopurua ordainduko zaie.

14.2.-Deialdia trailerra bakarrik bikoizteko bada, artistei deialdi berri bat balitz bezala ordainduko zaie, 13.1. puntuan zehaztutakoa ere gehituz, eta zuzendariari zuzendaritza lansaio bat eta dagokion metraje minutuen hainbesteko I. go eranskinean azaltzen denez.

15. ARTIKULUA.-ERREFERENTZIA SOINUA DUTEN EDO SOINURIK GABEKO IKUS-ENTZUNEZKOEN BIKOIZKETA

15.1.-Hitzarmen hontetan artista eta zuzendarien lanari ezartzen zazkien ordainsariak gutxienez %100 areagotuko dira erreferentzia soinua edo antzekoa duten, edo mutu diren ikus-entzunezko edo hauen zati baten bikoizketan.

15.2.-Antzezpeneren grabazioa aurrez egiten den lanetan, adibidez marrazki bizidunak sortzeko edo antzerki edo musika saio batean erabiltzeko, soldata alderdien artean erabakiko da, kasuan-kasu berezitasun horri dagozkion hitzarmenak kontutan hartuz(telebista,antzerkia, zinema..).Edonola ere gutxienerako artikuluko honen 1 puntuan azaltzen dena izango da beti.

16. ARTIKULUA.-AHOTS PROBAK EDO CASTING-AK

Ahotsak aukeratzeko frogetan egindako takeen bikoizketa, artista eta zuzendariari deialdi berri bat bezala ordainduko zaie, artistari deialdia eta takeak eta zuzendariari zuzendaritza lansaioa, edozein dela ere proba edo casting-aren emaitza. Aukeratutako aktoreei probagatik jasotakoa kenduko zaie produktua bikoizteko lehenengo lan deialdian.

17. ARTIKULUA.-ABESTIAK EDO INTERPRETAZIO MUSIKALAK

17.1.-Interpretazio musikala, artistak jatorrizko soinu bandan dagoen musika jarraituz egin beharreko bikoizketa da, partitura eta playback zehatza jarraituz. Baita testuaren egokitzapena behar dutenak sinkronia eta gidoiaren moldaketa behar bezala jarraitzeko (rap saioak eta abar). Guzti hauetarako musika zuzendari bat gaituko da.

Ikus-entzunezkoaren bikoizketako artisten jatorrizko errepartoak izango du lehentasuna abestien bikoizketarako, obraren maila mantentzeko gai diren bitartean. Artista batek ezin balu edo bezeroaren eskaera bat edo musika zuzendariaren erabakiagatik abesle profesional baten lana beharrezko balitz, bikoizlearen ahotsaren antzekotasun gehien daukana aukeratu da.

17.2.-Interpretazio musikalen edo abestien deialdiak, ohiko deialdi barruan gertatzen badira ere, aparteko kontratua izango dute parte hartzen duten artista eta musika zuzendariarentzat. Grabatutako abestiak ezingo dira jatorrizko ikus-entzunezko lanean besterik erabili.

Hala ez balitz, grabazio horietatik lortutako ekoizpen berriak, sortua izan denerako eremuan indarrean dauden eskubide, ordainsari eta berezitasunak bete behar lituzke.

17.3.-Lan mailak I.go eranskinean zehaztuko dira.

17.4.-Musika zuzendariaren parte hartzeak zuzendari lansaio baten ordainsaria izango du. Grabazioa ohiko deialdi baten barruan gertatuko balitz, bikoizketa zuzendariaren lansaioak %100eko gehigarria izango luke ordainen eranskineko salneurriaren gainetik.

17.5.-Interpretazio musikalen ordainketarako neurria abestia izango da. Abestia musika moldaketa bateratua eta letra dituen tartea da. Moldaketa musikala berdina izanik letran aldaketa nabariak gertatzen direnean, beste abesti bat bezala hartuko da, ikus-entzunezko lan berean aurkitzen badira ere.

Gidoiak hala eskatzen duelako zati ezberdinetan banatzen den abestia, abesti bakar bat bezala onartuko da, beti ere aurretik bikoiztutako zatiekin inolako aldaketarik ez badu (estrofa arteko elkarrizketak daudenean adibidez). Musika moldaketa beraren gainean letra nabarmen aldatzen den kasuetan, abesti ezberdin baten bikoizketzat hartuko da, dagokion ordainsariarekin.

17.6.-Interpretazio musikalen barietateak zehazteko erabil daitezkeen kontzeptu berriak, egun erabiltzen direnak ("dity") edo ez direnak, alderdien arteko ikuskaritza izango dute indarrean dauden salneurriekin bateratzeko. Hauen gutxieneko ordainsaria, takeen kopurua gehi % 100 izango da lanak duen berezitasunagatik.

17.7.-Abestiek sortutako eskubideen gaineko ordainsaria kasuan kasuko kudeaketa sozietateari atxikiko zaizkio eskusiboki.

18. ARTIKULUA.-DOKUMENTALEN BIKOIZKETA

Dokumental edo antzekoen bikoizketarako deialdiak, Hitzarmen honetako 27.artikuluaz azaltzen diren ohiko deialdien kontratuen ezaugarri berdinak izango ditu.

18.1.-Zinemarako diren dokumental edo antzekoen bikoizketa, eta interpretazioa edo/ eta sinkronia behar duten dokumentalak, Hitzarmen honen I.go eranskinean zehazten diren ohiko bikoizketaren salneurriak izango ditu.

18.2.-Telebista, DVD edo beste edozein euskarritarako bikoiztutako documental, reality eta antzekoen bikoizketak, I.go eranskinean azaltzen diren salneurri ezberdin eta bereziak izango ditu.

19. ARTIKULUA.-BIDEOJOKOEN BIKOIZKETA

Bideojoko bikoizketa edo soinu-jartzeko deialdiak Hitzarmen honetako I eta II ataletan agertzen diren artikuluetan esaten denaren arabera izango dira.

19.1.-Artxiboa. Bideojokoetan testua zatitzeko erabiltzen den zatikia da artxiboa. Gidoian zenbaki edo erreferentzia bakar eta adierazle batekin azaltzen da, obraren barruan duen kokapenarekin zerikusirik gabe.

19.2.-Artxibo motak:

a) Askeak. Grabatzerakoan inolako neurrirenpean ez daudenak dira, jatorrizkoak baina luzeago hala laburrago izan daitezkelarik. Mota honetakoen artean erreferentzia soinurik gabekoak daude.

b) Neurtuak. Jatorrizkoen hasiera eta bukaera denborak kontuan izanda grabatzen direnak. Hauek grabatzeko jatorrizkoaren ahots uhinaren erreferentzia edo denbora kodea duten monitoreak erabiltzen dira.

c) Irudi gabeko sinkronikoak. Jatorrizkoaren hasiera eta amiera errespetatzeaz gain tarteko isiluneak ere bere horretan mantendu beharreko artxiboa. Aurreko kasuan bezala uhinaren erreferentzia edo denbora kodea duen monitorea erabiliko dira.

d) Irudidun sinkronikoak edo zinematikoak. Film baten bikoizketa bezala grabatu beharrekoak.

e) Keinuak. Soinu adierazpenak besterik ez dituzten artxiboak (barre, negar, kexu...)

19.3.-Pick-up eta zuzenketak. Pick-up-en deialdiak (jatorrizko grabaketari ondoren egiten zaizkion gehigarriak) edo bideojokoaren bikoizketan zuzenketak egiteko deialdiak, berariazko tratamendua izango dute, bideojokoaren pertsonaiei artxibo berriak gehitzeko, jatorrizko grabaketaren ondoren pasatako denboraren arabera. Deialdia ez da 15 minutu baino gehiagokoa izango. Hala balitz lan berri baten ordainsaria izango luke. Ondainsarien eranskinean zehaztuko dira dagozkien salneurriak.

19.4.-Bideojokoaren ordainsaria zehazten duen neurria ordu erdia edo honen zatikiak dira, lehenengoak salneurri altuagoa izango du ondorengoek baino, eranskinean azaltzen denez.

19.5.-Artista bakarrak, edozein motako kontratua duelarik, ezingo du bideojoko, tutorial edo multimedia lan batean pertsona bat baina gehiago bikoiztu, artxiboaren osoko kopurua 100 baina gehiagokoa bada. 100 hauek bost pertsonaia ezberdinenak izan daitezke gehienez. Pertsonaia kopurua ere ez da inoiz handiagoa izango.

19.6.-Zuzendaria ezinbestekoa izango da bideojokoaren bikoizketarako, haren egitekoa Hitzarmen honen 9.artikuluan zehazten delarik. Zuzendariaren ordainsaria, I.go eranskinean zehaztutakoa da.

20. ARTIKULUA.-JOSTAILUETAKO TXIP-AK, ERANTZUNGAILUAK ETA ABAR.

Jendaurreko salmentarako jostailu, panpin edo produktu interaktibo bati atxikitzen zaizkion grabazioak dira, bai eta GPS, erantzungailu edo informatika sistema eragile edo antzekoetarako egiten direnak.

Grabazio mota honen salneurria I.go eranskinean zehaztuko da. Grabazio hauek izan ditzaketen aldaera ugariak direla eta artistak hitzarmenean zehaztutako salneurriaren gaintik tratua egiteko askatasuna izango du, bezeroarekin edo bikoiztetxearekin.

21. ARTIKULUA.- AUDIO-LIBURUAK ETA IKASTAROAK

Maila honetan, irudi gabeko euskarri batean, kultura, hezkuntza edo informazioa eskaintzen duten grabaketak biltzen dira, edo beste nolana hikoak, sustapen edo publizitatearekin zerikusirik ez dutenak.

22. ARTIKULUA.- PROMOZIOAK

Telebista kateetan ikus-entzunezko jakin baten iragarpena egiteko erabiltzen diren mikro-tarteak dira,(telesail bat, film bat,..), ikus-entzunezko horretan parte hartzen duten artistekin eginak.

Definizio honekin jatorrizko ikus-entzunezkoaren bikoizketa grabatzen den lantoki berean eta artista berdinen parte hartzearekin grabatzen diren iragarki edo promozioak jasotzen dira Hitzarmen honetan.

Definizio honetatik at daude, produktuen salmenta edo eskuragarritasuna iragartzen duten publireportaje, spot eta antzekoak.

23. ARTIKULUA- PUBLIZITATEA

- Produktu edo zerbitzuen sustapenerako, minutu bat baina gehiago ez duten tarteak dira, bikoizketa eta soinu-jartze etxeetan egiten direnak, esatari lana edozein formatutarako egiten delarik (irudia, irratikoa, euskarri digitalerako eta abar). Salneurrietan ez da egiten den lanean bereizketarik egingo, ez lanaren euskarrian, ez lanaren behin behinekotasunean, ez lana maketa edo proba edo beste edonolako izateagatik

23.1.-Lan hauetarako kontratu mota, deialdi kontratua izango da eta dagozkien salneurriak Hitzarmen honen I.go eranskinean zehaztuko dira.

23.2.- Deialdiari dagokion ordainsaria gehituko zaio, lan deia aipatutako publizitate lana baino egiteko ez bada.

23.3.-Hitzarmen honi dagozkion bikoizketa edo soinu jartze enpresetan grabatutako publizitatearen emisiorako iraunaldia urte betekoa izango da lehenengo emisio datatik aurrera. Publizitateren emisio datatik urtea bete ondoren, enpresak berriz ordaindu beharko du produktuak I. eranskinean duen salneurria.

Artikulu hau bera esaldi, testu edo publizitate produktu handiagoetan txertatutako espresioei ezartzen zaie. Egindako lanen gaineko eskubideen lagatzea 12 hilabetekoa izango da, emisio datatik Aurrera, edo ezagutzen ez den kasuetan, grabazioaren dataren ondorengo 30garren egunetik aurrera.

23.4.-Publizitate kanpainak, hiru hilabeteko denbora jarraitasuna duten publizitate produktu multzoak dira, esatari bakar bat edo batzuentzat. Hizkuntza bakarrean 4 kuina eta/edo spot edo 4

baina gehiago bi hizkuntzatan. Hiru hilabeteko epearen ondoren ez dira kanpaina izaerarekin ordainduko. I. eranskinean zehazten den ordainsaria izango dute.

23.5.-Minutu bat baina gehiagoko iraupena duen produktu edo zerbitzuen salmentarako xedea duen lokuzioak publiekotasun maila izango du eta artikulua honetako puntu guztiak izango ditu arauak.

24. ARTIKULUA.- EZAUGARRI BEREZI BAT BAINO GEHIAGO DEIALDI BEREAN

Deialdi berean atal honetan azaldutako ezaugarri berezi bat baina gehiago ematen denean, ezaugarri horiei bakarka dagozkien gehikuntza guztiak batu egingo dira, gehigarriak direlako.

IV. ATALA.- KONTRATAZIOA

25. ARTIKULUA.- KONTRATAZIOAREN BALDINTZA OROKORRAK

25.1.-Bizkoizketa edo soinu-jartze enpresen eta artista eta zuzendarien arteko kontratuak idatzizkoak izango dira, Langileen Estatutoak bermatzen duen legez, eta bereziki 1435/1985 Erret Dekretuak zehazten duenaren arabera edo unean ezartzea legokena.

25.2.-Proba edo praktiketako garai bat ezartzen duen ituna ez da aintzakotzat hartuko artistak enpresan eginkizun berak bete izan baditu, edozein kontratu mota izan duelarik ere.

25.3.-Kontratu mota guztiek, deialdiko kontratuak ez ezik, eskusibitatea izango dute berezko nahitaez, eta langilearen kontratutik edo soldata-horritik banatua behar izan ezker, kasuan kasuko eta I.go eranskinean dagoen soldataren %10eko balioa izango du.

Eskusibitateak, kontratatzen duen enpresarekin lotzen du langilea Hitzarmen honetako arlo funtzionaleko eite guztietarako. Salbuespenak, kontratatutako langileak berak iruditan antzetzutako pertsonaien bikoizketa edo kontratua sinatu aurretik egindako bikoizketa bateko takeen zuzenketa edo errepikapena izango dira.

26. ARTIKULUA.- DEIALDIKO KONTRATUA

Enpresa eta artista edo zuzendariaren artean lanaldi bakarrerako edo lanaldiaren zati baterako, deialdiz egiten den kontratua da. Kontratu honetan lanaldiaren gutxi gora beherako ordutegia eta egin beharreko lana adostuko dira, alde bien borondate on eta malgutasuna tartean, langileak egiteko daukan lana amaitu dezan edo enpresak adostutako ordutegiak errespetatu dituzan, modu honetan langilearen beste lanetarako aukera bermatuz.

Lanaren berezitasuna dela eta, deialdi kontratuak hitzezko izan daitezke.

26.1.-Ikus-entzunezko batekin jarraitasuna edo lotura duen lan berria egiterakoan, haserako artistek lehentasuna izango dute, beti ere lana hartzeko moduan badaude. Artistaren eskuragarritasun maila pertsonaiari dagozkion take kopuruaren arabera izango da, eta bai artista bai enpresa baldintzak negoziatzera behartzen ditu artikulu honek, alderdi bien ordezkariak bertan direla, beti ere jatorrizko ikus-entzunezkoaren bikoizketa egin zuen enpresa bada. Hasierako bikoizketa lanarekiko eta artistaren eskuragarritasunarekiko aldaketarik ez bada, enpresak ezingo du inola ere hasierako pertsonaien banaketa aldatu.

26.2.-Kontratu hauei dagozkien ordainsariak, Hitzarmen honetako I.go eranskinean zehaztuko dira, bai kontratu mota naiz lan unitateei dagokienez.

26.3.-Artistak lan deia betetzeko 100km edo gehiagoko joan etorria egin behar badu, enpresak gutxieneko 20 takeko salneurria ordaindu beharko du, take kopurua egiten den edo ez den kontutan izan gabe. Bikoizketa zuzendariei bidaia dietak egokituko zaizkie.

27. ARTIKULUA.-KONTRATU MUGAGABEA

Bikoizketa enpresa eta edozein espezialitateko (artista edo zuzendari) langile batekin lotura mugagabea ezartzen duen kontratua da.

27.1.-Kontratu hauei dagokien ordainsaria Hitzarmen honen I.go eranskinean zehazten dena da lan espezialitate bakoitzerako. Kontratu bakarrean espezialitate bat baina gehiago gertatzen badira, jaso beharreko ordainsaria espezialitate horiei dagokiena gehituz egingo da.

27.2.-Kontratu mugagabea duten langileek, ordain-horri ofizialak jasoko dituzte eta bertan enpresak langileari dagozkion ordainen kontzeptuak, langilearen espezialitatea, ordainari dagozkion epea eta dagozkion legezko kenkariak jasoko ditu.

27.3.-Kontratu mugagabea duen langileak, enpresako langile finkoaren eskubide eta betebeharrak laborar eta sindikal berdinak izango ditu.

27.4.-Profesional hauek, goiz edo arratsaldeko ordutegia izango dute beren lana egiteko. Kontratuagatik dagozkien ordutegiaz kanpo lanerako deia jasoko balute, ordainsaria, deialdi kontratua duten langileena bera litzateke.

27.5.-Kontratu hauetatik kanpo geratzen da publizitatearekin lotura izan dezakeen edozein lan. Lan horiek aparteko ordainagiriz ordainduko dira, I.go eranskinean zehazten denaren arabera.

28. ARTIKULUA.-ALDI BATERAKO KONTRATUAK

Urtebete baina gutxiagoko aldi baterako kontratuak, beti ere hilabete baina gehigokoak, kontratu mugagabeen baldintza eta ordainsari berak izango dituzte, hauen gainera %50arekin.

Aldi baterako kontratua mugagabe bihurtzean, aurreko paragrafoan aipatutako igoera bertan bera geratuko da.

29. ARTIKULUA.-OBRA-KONTRATUA

Lan jakin baterako obra-kontratua Hitzarmen honen 29.artikuluaren zehaztutakoei atxikiko zaio.

V. ATALA.-LANALDIAK

30. ARTIKULUA.-OHIKO LANALDIA

30.1.-Ohiko lanaldia asteleheneetik ostiralera ezarriko da (jaiegunak ez ezik), bakoitza, gehienez jarraian 7 ordukoak. Zuzendariak 15 minutuko geldialdia egin ahal izango du eta aretotik kanpo egon denbora tarte horretan. Aretoan ez da egiten ari zen bikoizketarik egingo

Deialdiak goiz edo arratsaldeko txandatan gauzatuko dira, aurretiaz ezarritako ordutegiekin.

Ohiko txanden ordutegiak hauek izango dira: goizekoa 8etatik 15era eta arratsaldekoa 15etatik 22tara.

30.2.- Edozein ustekabeko gertaeratik, nahiz arazo teknikoa edo bestelakoa, goizeko lanaldia bere ordutegitik at hogeita hamar minutu baina gehiago luzatuko balitz, artistek eta zuzendariak 1.50 eranskinean beste deialdi bati dagokion ordainsaria jasoko lukete gehigarri.

31. ARTIKULUA.-LANALDIA LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN

Larunbat, igande edo jaiegunen batean deialdi bat edo gehiago beharrezko gertatuko balira, artista eta zuzendariaren ordainsariekin %100eko igoera izango lukete.

32. ARTIKULUA.-GAUEKO LANALDIA

32.1.-Gau lanaldia, gaueko hamarretatik aurrera hasitako deialdia izango da, bai eta arratsaldeko deialdiaren luzapena bere amaiera ordutik aurrera.

32.2.-Gau lanaldiak 6 orduko iraupena izango du gehienez. Artistek eta zuzendariak deialdi berri bati dagokion gainsaria jasoko dute, %100eko gehigarriaz.

33. ARTIKULUA.- ADINGABEEN LANALDI ETA LAN-BALDINTZAK

Ikus-entzunezko baten bikoizketan 16 urtetik beherako adingabe batek parte hartu behar duen kasuetan, guraso edo tutoreei lan agintaritzaren baimena eskatuko zaie indarrean dagoen legediaren arabera. Lanerako baimen horren eskaera adingabearen ordezkari legalek egin beharko dute, adingabearen baimenarekin.

16 urtetik beherakoen kontratuetan honako baldintza hauek errespetatuko dira:

33.1.-Eguneko lanaldi bakarra eta enpresa bakarrean egitea.

33.2.-Ezingo dute lan pornografiko edo eduki bortitza duten lanen bikoizketa, nahasketa edo ikuskatzeak egiten diren aretoetara sarbiderik izan.

33.3.-Ez dute gaueko lanaldirik beteko.

33.4.-Ordainsari, ordainketa modu eta gainerakoetan, edozein langileri dagozkion eskubideak izango dituzte.

VI. ATALA.-LAN-EREMUA

34. ARTIKULUA.-OINARRIZKO ESKUBIDEAK

Langileen Estatutoan, Askatasun sindikalaren lege organikoan eta gainerako lege-xedapenetan aitortutako oinarrizko eskubide, betebeharrak eta berme sindikalak langileei eta haien lege-ordezkariei ezarriko zaizkie.

34.1.-Enpresek lana gauzatzeko inguru egokia bermatuko dute, bai arlo teknikoan, naiz materialekin eta lanerako lekuaren egokitasunarekin, eta baita lanerako garbitasun eta segurtasun baldintzekin ere. Kafetegi edo/eta edari makinari ez daukaten enpresek, ur edangarridun makinak izango dituzte langile guztientzat erabilgarri den lekuan.

34.2.-Profesional guztiek, edozein dela haien espezialitatea, kontratua onartzeko beharrezko aurkitzen dituzten argibideak eska ditzakete.

34.3.-Artistek, testuen egokitzapenak baldintza onetan, zirriborrorik gabe eta Hitzarmen honetako 10.1. artikuluan zehazten diren baldintza eta tipologia erabiliz idatzitako testuak izango dituzte.

34.4.-Zuzendariak, aretoko lana betetzeko, egokitutako gidoiaren eta produkzio horriaren kopia bat izango ditu.

35. ARTIKULUA.-LANGILEEN LEGEZKO ORDEZKARIEN FUNTZIO ETA ESKUMENAK

35.1.-Enpresa bakoitzean arlo artistikoko langileek dituzten kontratuen zigilatutako kopia simple bat edukitzea, legeak agintzen duenaren arabera. Deialdi kontratuz egindako idatzizko kontraturik ez dagoela eta, enpresak hilabetero langileen legezko ordezkariari enpresan egin diren lanen produkzio horrien kopia luzatuko diete, bertan azalduko direla: lana egindako data, jatorrizko izenburua, bikoiztutako izenburua, bikoizketa zuzendariaren izena, bikoizketan parte hartu duten antzezleen izenak eta bikoiztu dituzten pertsonaiak, eta bakoitzak bikoiztutako take kopurua.

35.2.-Enpresaren egoitzetan bilerak antolatu eta egitea, enpresari behar den denboran eta moduan eskaera luzatuz.

35.3.-Elkarte profesionaletatik eta sindikatuetatik jasotzen dituzten berriak jaso eta banatu.

35.4.-Langile eta artistak askatasunez ibiltzeko moduko kokapenean enpresak ezarritako ohar-
taula erabiltzeko eskumena.

35.5.-Lantokietara askatsun osoz sartu eta ordezkari izateagatik dagozkion eginkizunak sustatu eta haietan parte hartzea.

36. ARTIKULUA.-SINDIKATU ETA ELKARTEEN BITARTEKARITZA

Bitartekaritza, adostasun eta arbitraia mahaiaren parteatzea eskatzeko alderdi bien eskubideaz at, enpresarekin jarraitasun eta maiztasunik gabeko lotura duen langileak, sektoreko enpresa jakin batean bere eskubideak urratu direla uste badu, partaide den sindikatu edo elkartearen ordezkari baten laguntzaz enpresa horretan kasuari dagozkion agiriak ikuskatzera joateko eskubidea izango du, honela aurkeztutako kexaren egiazkotasuna frogatu eta lan agintaritzaren aurreko agerraldia ekidin ahal izateko konponbide bat bilatzeko.

37. ARTIKULUA.-PARTEARTZE ETA ORDEZKARITZA SINDIKALA

Hitzarmen kolektibo honetan arautzen den langilearen ordezkari itzulia bideragarri egin ahal izan eta hauteskunde sindikaletan parte hartzea ahalbidetzeko, bikoizketa aktore/sek, aipatutako hauteskunde eta Langileen Estatutuko 72.artikuluari dagozkionetarako, langile finko-
etenen maila izango dute, eta hautesle eta hautatu izateko aukera, hauteskunde prozesuaren hasieraren aurreko urtean zehar enpresarentzat 30 egun edo gehiago lan egin badute.

38. ARTIKULUA.-SOLDATAK, GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOAK ETA LEGEZKO KENKARIAK

38.1.-Profesionalei ordaindu beharreko ordainsari guztiek, edozein dela kontratu mota, soldata izaera daukate eta ordinagiri ofizialetan gauzatuko dira, gizarte segurantzako kuota eta PFEZ-ri dagozkien kenkariekin, bai eta momentuoro sor daitezken lege xedapenei dagokiena ere.

38.2.-Obra-kontratua edo deialdi kontratua duten artista eta zuzendariak, dagokien soldataren ordaina banku transferentziaz jasoko dute, lana egindako hilabetearen ondorengo lehenengo eta bostgarren egunaren artean. Enpresak langilearekin akordiorik izan gabe soldata ordaintzeko modu ezberdina erabakitzen badu, soldatari %5ekoa gehituko zaio sor daitezken gastuengatik.

Soldataren ordaina atzeratzeak, zorraren % 10eko berandutza interesa izango du, Langileen Estatutuko 29.artikuluko 3. Atalak dion legez.

Kontratu mugagabe edo aldi-baterako kontratua duten profesionalak hilaren amaieran jasoko dituzte dagozkien ordainsariak. Aparteko ordainsariak jasotzea badagokie, uztaila eta abenduan ordainduko zaizkie, alderdiek beste moduren batean egiteko akordiorik ez badute.

Soldata ordaintzean atzerapenak behin eta berriz gertatzea Hitzarmen honetako lan baldintzen funtsezko aldaketa da, eta aurretiaz enpresa eta langileen ordezkarien arteko adostasuna behar du. Atzerapenerako arrazoiak behar bezala frogatutakoak eta denbora tarte mugatu baterakoak izango dira eta langileen kolektiboari gutxienez hilabeteko aurretiaz jakinaraziko zaio.

38.3.- 1435/1985 Erret Dekretuaren eta ondorengo garapen arauen bidez lana araututa duten eta Hitzarmen honek lotzen dituen profesionalak, dagokien maila profesionalaren arabera kotizatu behar dute.

Egun eta enpresa berean lan mota bat baina gehiago egiten direnean maila profesional ezberdinetan, Gizarte Segurantzako kotizazio bakarra egingo da mailarik altuenagatik, baina lan ekintzen frogagirian ordainsari gordin guztien batuketa jasoko da.

38.4.-Bikoizketa zuzendarien Gizarte Segurantzaren kotizazioei dagokienez, lansaio bat kotizatuko da eguneko, enpresa berean egindako zuzendaritza saio bakar edo gehiagorengatik.

39. ARTIKULUA.-BATZORDE PAREKIDEA

39.1.-Batzorde Parekide bat eratuko da, Hitzarmenaren sinatzaileek osatua. Zehazki, 8 kidek osatuko dute batzorde hori, langileen lau ordezkariak eta enpresaren aldeko beste lauk. Bi aldeetako batek batzordea biltzea eskatzen badu, organo horrek gehienez ere hamabost eguneko epean egin behar du bilera. Eskumen hauek izango ditu Batzorde Parekideak:

a) Hitzarmen Kolektibo honetako arauak interpretatzea.

b) Hitzarmen honetan jasotako konpromisoak bideratzea eta betetzea.

39.2.-Batzordea eratzten duten ordezkarietako heren batek (1/3), dagozkien eskumenen arabera, Batzorde Parekidearen bilera eskatzen badu, organoak derrigorrez bildu beharko du. Batzorde Parekideko sindikatuen ordezkariak bakoitzak eta enpresaren ordezkariak gehienez ere 2 aholkulariren laguntza jaso ahal izango dute. Aholkulari horiek hitza izango dute baina botorik ez.

Edozein kidek eduki ahal izango du ordezkia, aldez aurretik batzordeari horren berri emanda.

39.3.-Batzorde Parekidearen erabakiak baliozkoak izateko, ordezkariak bakoitzaren botoen %51k berretsi beharko ditu erabaki horiek.

39.4.-Batzorde Parekidean sortutako desadostasunak GEP II-Laneko gatazkak ebazteko borondatezko prozedurei buruzko lanbide arteko Akordioan (EHAA, 2000/04/04koa) araututako bitartekaritza-prozeduren arabera ebatziko dira.

VII.ATALA.-KAUTELAZKO NEURRIAK

40. ARTIKULUA.- ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

40.1.-Enpresak, artista eta zuzendarien ordain-agiri eta deialdiak agiri ofizialetan ordaintzera behartuta daude, edozein dela kontratu mota, dagozkien legezko kenkariak ezarrita.

40.2.-Nabarmenki berandu iristeagatik, edo lantokitik aurretik adostu gabe aldegitagatik artistak lanaldiarako aurrikusitako lana beteko ez balu, eta lan hori osatzeko beste deialdi bat jaso behar balu, ezingo du ordainsaririk eskatu deialdiari dagokionez. Lanaldi berezi honetarako zuzendariaren deialdiak ohiko ordainsaria izango du I.go eranskinean dagokionaren arabera.

41.3.-Profesionalen deialdia bertan behera geratzeko jakinarazpena, aurrikusitako deialdiaren aurretiko 24 orduko gutxieneko epeaz egingo du enpresak. Baldintza hau ez betetzek, kaltetutako langileei deialdiaren ordainsariaren zenbatekoa ordaintzera behartuko du enpresa, langileei eragin diezaieken kaltea nolabait berdintze aldera, ezinbesteko kasuen salbuespenarekin.

Modu berean, deialdia jaso duten profesionalek ere, lansazioan haiengatik gerta daitezkeen balizko aldaketak sahiesteko, 24 orduko aurretiaz jakinaraziko diote enpresari, lan planen egokipenerako aukera egon dadin. Aurreabisu hau ez egiteak edo arrazoi frogagarririk gabe lantokian ez agertzeak eskumena emango dio enpresari profesional hori lan horretan ordezkatzeko. Ordezkatzea ezina balitz deialdiagatik ordainsaririk jaso gabeko lanaldira behartu ahal izango du.

Puntualitate falta nabariagatik edo lantokitik aurretiaz adostu gabe alde egiteagatik artistak lanaldirako adostutako lana beteko ez balu eta deialdi berri batetara etorriko balitz, ez du deialdigatik ordainsaririk jasoko.

41. ARTIKULUA.-HIRUGARRENEKIKO ERANTZUKIZUN PROFESIONALA.

Hitzarmen honetan arautzen diren lan espezialitateak betetzen dituzten profesionalak ez dute inolako erantzukizunik izango, ikus-entzunezko baten bikoizketarako kontratuen arabera gauzatzen duten lanak, hirugarren batzuen eskutik epailetzako erreklamazio bat jasoko balu, beti ere jatorrizko testuen nahitako aldaketa batengatik ez bada.

42. ARTIKULUA.- ITUN BALIOGABETZEAK

Hitzarmen Kolektibo honek zehazten dituenak baina maila gutxiagoko baldintzak ezartzea zuzenbide osoz deusezkoa da.

VIII.ATALA.--FAMILIA ETA LANAREN BATERAGARRITASUNA ETA OPORRALDIA

43.ARTIKULUA.-FAMILIA ETA LANAREN BATERAGARRITASUNA

Familia eta lana bateragarri egitea: lanaldi-murrizketa legezko zaintza dela-eta.

Langileek eskubidea izango dute lanaldia murrizteko, LEren 37.5 artikuluan xedatutako egoeretan eta moduan. Lanaldiaren murrizketa hori egiteko eta gozatzeko, eguneko, asteko, hilabeteko edo urteko lanaldia hartu ahal izango da erreferentziazko epetzat

44.ARTIKULUA.-OPORRALDIA

Aldi baterako ezintasun egoeraren bat dela medio, langileak ezin badu oporraldia dagokion urte naturalean hartu, aukera izango du ezintasun hori amaitzean oporraldi horretaz gozatzeko, edozein dela ere ezintasuna eragin duen gertakaria edo kausa eta igarotako denbora.

I.GO ERANSKINA

KONTRATU MUGAGABEAK

Bikoizketa zuzendaria	3215€	X 14 soldata	45010€
Artista	2500€	X 14 soldata	35000€

DEIALDI KONTRATUAK

Zinema Zuzendaritza DB	45€
Zuzendaritza DO	38,34€
Artista DO	38,34€
Zinema Takea	4€
Takea	3,47€
Zinema Zuzendaritza minutua	5€
Zuzendaritza Minutua	4€
Zuzendaritza ordu extra	24€

DB- Deialdi Berezia

DO- Deialdi Orkorra

BIDEOJOKOAK

Lehenengo deialdi orduerdia edo zatikia	75€
Ondorengo orduerdi edo zatikia	45€
Pick,up-ak. 15 minutu edo zatikia	50€
Zuzenketak. 15 minutu edo zatikia	40€
Kasting edo ahots proba	35€
Zuzendaritza. Ordubete edo zatikia	35€
Zuzendaritza. Lanaldi osoa	225€

DOKUMENTALAK

Deialdiko artista DO	38,34€
Takea	3€
Zuzendaritza DO	38,34€
Esatari nagusia 15min.	100€
Esatari nagusia 30min.	150€
Esatari nagusia 60min.	220€
Esatari nagusia 90min.	290€
Zuzendaritza minutua	3,5€

REALITY ETA ANTZEKOAK

Reality eta antzekoak	30 min. arte	60 min. arte	90 min. arte
Pertsonaia berezia(lerro kopuruaren %35 baina gehiago)	DO + 25€	DO + 35€	DO + 45€
Pertsonaia arrunta	DO + 2,8€ takeko	DO + 2,5€ takeko	DO + 2,3€ takeko
Zuzendaritza	DO + 34,48€	DO + 63,65€	DO + 95,48€

JOSTAILUEN ZIRKUITUAK, ERANTZUNGAILUAK ETA ABAR

Lehenengo 10 artxibo edo zatikia	12€
20 artxibo arte	10€
50 artxibo arte	5€
100 artxibo arte	3,5€
100 garrenetik gora, bakoitza	2€

Artxibo kopurua 5 baina txikiagoa denean DO ordainduko da

PROMOZIOAK

Promozio bakoitza	90€
-------------------	-----

AUDIOLIBURUAK

Esatari lansarioa/ Lanaldi erdia	400€/250€
----------------------------------	-----------

INTERPRETAZIO MUSIKALAK

Abestia. Bakarlariak	150€
Abestia. Koroak	65€
Telesail edo serie buruko edo amaierakoa. Bakarlaria	200€
Telesail edo serie buruko edo amaierakoa. Koroak	75€

PUBLIZITATEA

Irrati kuina	50,00€
Spota	150,00€
4 Irrati kuña eta/ edo spot etik aurrera, hizkuntza bakarria	% 25 eko beherapena
Publierreportaiak	Kuinak- 90€ lehenengo minutua eta 50€ minutu edo zatikia
Publierreportaiak	Spotak- 250€lehenengo minutua eta 90€ minutu edo zatikia

